

JORDANIAKO ERREGEAREN BIZIA SALBATZEKO EZER EZIN DELA EGIN ADIERAZI DUTE ERREGE GORTEKO ITURRIEK

Hussein, klinikoki hilda

■ Astearren hasieran muin transplantea egin zioten EEBBetan, baina barne organoek ez zioten behar bezala erantzun

■ EEBBetatik «oso egoera larrian» itzuli zen atzo Jordaniara, 47 urtez agindu duen herrian hil nahi baitzuen

■ Ammanera heltzean Al Hussein ospitalera eraman zuten eta zaintza berezietako unitatean geratu zen

Erredakzioa / Donostia

HUSSEIN erregea, Noor emazteak lagunduta, atzo goizean itzuli zen Jordaniara, 46 urtez agindu duen lurraldean hiltzeko. Hussein, 63 urtekoa, «oso egoera larrian» heldu zen eta «klinikoki hilda» zegoen, Errege Gorteko iturriek jakinarazi zutenez.


«Medikuen zaintzapean jarraitzen du erregeak», zehaztu zuen, ordea, Nasser Jude Informazio ministroak, Hussein hil zela gezurtatuz.

Erregea zekarren hegazkinak goizeko 09:50ean (08:50 Euskal Herrian) lur hartu zuen Amman hiriburuko Alia Erregina aireportuan. Hegazkina ordu batzuk lehenago irten zen EEBBetako Rochester hiritik, eta herrialde horretako aire espazioa zeharkatu zuen Armada estatu batuarreko bi F-16 ehiza-bonbarderok lagunduta.

Hussein Ammango aireportuan zain zituen Abdala oinordeko printzea eta Gobernuako zenbait ministro. Heldu bezain pronto, Al Hussein Zentro Medikora eraman zuten Hussein, eta han geratu zen zaintza berezietako unitatean.

Hussein erregeak ezin izan du gaintitu zuen minbizi linfatikoa. Orain sei hilabete muin transplantea egin zioten Rochesterreko Mayo Klinikari, eta kimioterapiarekin sendatzen aritu eta gero Jordaniara itzuli zen joan den hilean. Astebete egin zuen herrian eta erabaki garrantzitsuak hartu zituen: Hassan anaia oinordekotzatik kendu eta Abdala seme zaharrena izendatu zuen. Askoren hitzetan, jauregi kolpe bat eragozteko itzuli zen, anaiari leporatu baitzion leial ez izatea, familia iraintzea eta Armadan baimenik gabe aldetak egitea.

Baina urtarilaren amaieran ezustean itzuli behar izan zuen Rochesterreko Mayo Klinikara, minbizi gaiztotu egin zitzaiolako. Astearren hasieran bigarren transplantea egin zioten, eta oinarritzko organoek ez zioten behar bezala erantzun, bere mediku pertsonalak esan zuten.




GERRY PENNY / EPA

Hussein erregea, jendea agurtzen, Londresera duela aste batzuk eginiko bidaian.

soslaia

HUSSEIN • Jordaniako erregea

Ekialde Erdiko «zaindaria»



JORDANIAKO HUSSEIN erregea munduko gune liskartsuenetakotan patxadaz eta moderazioz jokatzen jakiteagatik gogoratuko dute. Israel eta Palestina, edota arabiar eta juduen arteko borroken lekukoa izan da Hussein halabeharrez, eta alde baten zein bestearen aldeko edo aurkako hitzak esaterakoan ardura berezia izan du beti. Moderazio hori bide batzuen zein besteen eraso bortitzak jaso ditu 63 urteko agintariak.

Hussein -Hatxemi sendiko ki-dea-, 1935eko azaroaren 14an jaio zen Ammanen, Jordaniako hiriburuan. Bertan eskola islamista batean jaso zituen lehen ikasketak. Ondoren, Alexandrian (Egipto) eta Erresuma Batuan jarraitu zituen ikasketak (Harrow unibertsitatean). Jordaniako errege izendatu zuten 1952an, 17 urte eskasekin.

1967an, arabiar eta israeldarren arteko *Sei eguneko gerran* parte hartu zuen Jordaniak, eta porrota-ekin, erreinuaren mendebaldean zegoen Zisjordaniako eremua gal-

du. 1970ean, kolokan zegoen agintaritzaren berreskuratu zuen, gutxiengo beduinoen laguntzarekin eta PAE Palestinaren Askapenerako Erakundeko gerrilarien aurka gogor borrokatu ostean.

Herrialde arabiarrekiko hartumana 1979an berreskuratu zuen. 80ko hamarkada bukaeran aberriko prozesu demokratikoa abiatu zuen eta herrialde arabiarren gus-tuko joera hartu bi ekintzarekin: Zisjordaniarekin harremanak hautsi eta Iraken alde -EEBBen aurka- egin Golkoko gudan.

Diplomazia lanetan iaioa, amerikarren oniritzia jaso zuen urte batzuk beranduago Israel eta Palestinaren arteko negoziaketetan bitartekari lana beteta. Ekialde Erdian boterean denbora gehien iraun duen agintaria da Hussein. Kostata, hainbat atentatu eta atentatu saio saihestu baititu. Hilzorian, inoiz ahaztu ez zaion lana bete zuen: erabaki garrantzitsuak hartzea, Abdala semea bere oinordeko izendatzea.

erreakzioak

Jacques Chirac •

Frantziako presidentea

«Munduko agintari guztien errespetua eta oniritzia lortu zuen»

► «Ekialde Erdiko eta Jordaniako baketze prozesuetan zeresan ikaragarria izan du Husseinek, eta horregatik, balio handiko pertsonaia hil da. Munduko agintari guztien errespetu, begirune eta oniritzia jaso zuen bere jokoarekin. XX. mendeko pertsonaia garrantzitsu bat galdu du, eta nik, lagun min bat».

Errusiako Atzerri Ministerioa •

«Ekialde Erdiko itxaropen giroa sustatu zuen»

► «Ekialde Erdian egun bizi duten itxaropen eta bake giroaren erantzule nagusia izan da Hussein erregea. Mosku eta Ammanen arteko harreman onen gidaria hiltzea galera handia da».

Bill Clinton •

EEBBetako presidentea

«Hussein gizaki zoragarria zen»

► «Hussein erregea gizaki zoragarria zen. Zin dagizuet, bakearen txapeldua zen niretzat. Ziur nago bizitzen jarraitzeko azken borrokan bakea nola lortu pentsatzen ari zela».

Benjamin Netanyahu •

Israelgo lehen ministroa

«Israeldar guztiek egin dugu otoitz Hussein erregearen alde»

► «Israeldar guztiek egin dugu otoitz Hussein erregearen alde. 1994an lortutako bake akordioetan egin zuen bitartekaritza lana eta haren bitartez sortutako elkartasuna ez zaigu ahaztuko inoiz. Bakean fedea duen guztia- rentzat galera handia da».